

Félix María de Samaniego
Alegiak / Fábulas
Itzultzailea: Koldo Biguri
Arabako Foru Aldundia
Gasteiz, 2003

Literatura didaktikoaren berrikustea

Félix María Samaniego alegiagile ospetsua Arabako Errioxako Laguardia herrian jaio zen 1745ean, Espainiako Carlos III. erregeak Ilustrazioa bultzatu zuen garai bertsuan. Formazio klasikoa jaso zuen eta, bizimodu aski eroso zuela, kultur kezkez elikatu zuen bere astia. Ezagunak dira Iriarte alegiagile kanariarrarekin izan zituen tirabirak; ezagunak dira Azkoitiko zalduntxoekin izan zituen harremanak (Xabier Maria Munibe Peñafloridako Kondea buru izan zuen “Bascongada” elkarte haren sortzaileetako bat izan zen, kondearen *El borracho burlado* antzerki lanean aktore gisa parte hartu zuen...); baina, oroz gain, idatzi zituen alegiak izan dira Samaniego historiara pasarazi dutenak.

Alegiena genero klasikoa bada ere, gutxienez XVII. mendetik umeen heziketarekin lotuta agertzen zaigu, haurrei latina irakasteko zein haien irakaskuntza didaktiko-moralerako: animaliei ezaugarri eta jokabide moral desberdinak ezartzea aspalditik datorren baliabidea da. Esopo eta Fedro alegiagile klasikoei jarraituz, La Fontaine-ekin zion lan horri Frantzian, eta Samaniegok eta Iriartek Espainian, XVIII. mendean zehar.

Samaniegok klasikoen iturrietatik edan zuen, batez ere gaien aldetik, eta berariazko alegiak osatu, eta bertsotan jarri zituen, oroimenaren lagungarri. Bederatzi “liburutan” antolatu eta, guztira, 150 alegiatatik gora sortu zituen. Hitzaurrean adierazi zuenez, haurren espiritua moralez elikatzeko idatziak ziren, amaieretako ikaskizunak eta guzti.

Oraingo edizio honek ere badu tradizioirik: lehenago, 1979an, Josu Egeak euskaratu zituen alegiok Arabako Foru Aldundiko edizio baterako. Oraingoan, edizio elebiduna Emilio Palacios Fernández-en eskutik joan da, eta itzulpena, berriz, Koldo Biguri itzultzaile arabar ezagunak egin du, XIX. mendearen azken laurdenean Agustin Paskual Iturriagak eta Felipe Arrese-Beitiak hasitako lanaren azken lekukoa hartuz. Samaniegoren testuetako bertsifikazioa zortziko nagusietara aldatu du Bigurik, tarteka beste zenbait neurri tradizional ere erabiliz, emaitza argi dotorea lortuz.

Edizio hau “XXI. mendeko ume euskaldunentzat ere baliagarri” izatea bainoago, Samaniegoren omenezko edizio testimonial dotoretzat hartu beharko genuke.

Manu Lopez Gaseni